

Ondorio zehatzak jakiteko goizegi

Aurkako erreakzio handia sortu du joan den hilean Madrilen onartutako Espainiako Kostalde Lege berriak. Oposizioko alderdiek, talde ekologistek... lege aldaketak ezer onik ekarriko ez duela denek dute argi, baina ezin oraindik zehatz esan, Euskal Herriari dagokionez bederen, zertan izango den kaltea. Argi dago, dena den, itsasertzaren izaera publikoa ahulduko dela.

| UNAI BREA |



PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN

Bakioko hondartza, Bizkaian. Euskal kostaldean higiezinaren presioa gehien jasaten duen herrietako bat da Baki.

MAIATZAREN 9AN, Madrilgo Diputatuen Kongresuak Kostalde Lege berria onartu zuen, 1988tik Espainiako Estatuan indarrean zegoena ordezkatu duena. Lege aurre-proiektua ezagutu zenetik asko hitz egin da hartaz, eta bereziki haren kontra, higiezin-espekulazioaren aurrean itsasertzaren babesa ahul-

duko duela leporatzeko. Espainiar Kongresuan eta Senatuan izandako eztabaidetan arau berriaren aurka azaldu dira EAJ zein Amaiurreko taldeak, ez beti arrazoi berdinegatik. Euskal elkarte ekologistek ere, zer esanik ez, ez zaie gustatu PPrent bultzadaz gauzatuako legedi aldaketa. Alta, oraindik ez dago garbi

aldaketa horrek nola eragingo duen Euskal Herrian.

Alberto Unamunzaga Amaiurreko senatariak dioenez, “testu berria erreforma ideologikoa da, itsasertzaren jabetza publikoa izateko tradizioari aurka egiten diona”. Publikotasun hori ongi jaso zuen aurreko legeak, PSOEren aginte-



1988ko legeak 30 urteko epea –60ra arte luzatu zitekeena– ematen zien Itsas-lehorreko Jabetza Publikoan eraikitako enpresei beste kokaleku bat bilatzeko, baina lege berriak 75 urtez du epe hori, 2018tik zenbatzen hasita. Horrek mesede handia egingo dio Petronorri, esaterako, nahiz eta hark aurrez zuen etorkizuna ziurtatuta hainbat hamarkadatarako, PSOeren agintepean eta EAJren bitartekaritzarekin *ad hoc* egindako akordio bati esker.

pean 1988an onartu zenak, PPren testu berriaren aurka agertu diren gehienek adierazi dutenez. Beste kontu bat da hura ondo aplikatu zen ala ez. “Lege berri hau atzerapausoa da, eta mito bihurtu du aurrez zegoena”, dio Gernikako Ekologia Tailerreko kide Alfonso Cañok, “baina gogoan hartu behar da lege hura ez zela behar bezala bete”.

Jabetza Publikoaren mugaketa egiteke

1988ko legeak Itsaso eta Lehorraren Arteko Jabetza Publiko modura definitzen zituen itsasoa eta itsasoaren eraginpeko lehor zatia. Eremu

horren jabetza publiko izatea espainiar konstituzioak ezarritako zerbait da, ez legeak berak. Teoriatik praktikarako jauzia ez da erraza suertatu, baina. Hasteko, itsasoaren eragina norainokoa den ezartzeko araua polemikoa zelako: ezagutzen den enbatarik handienarekin olatuak noraino iritsi ziren, hortxe zegoen muga. Legeak zioen bost urteko epea zegoela Jabetza Publikoaren mugak behin betiko zehazteko, baina gaur egun oraindik mugaketa hori amaitzeke dago. Euskal Herriari dagokionez, Gipuzkoan %100 zegoen eginda 2011ko abenduaren 31n, Bizkaian %80 baino ez. Lege

berriak, bide batez esateko, Jabetza Publikoaren mugaketa leku askotan berriz egitea aurreikusten du; haren aurkarien ustez, orain arte mugaketa erabilitako baliabide publiko eskergak alferrik botatzearen parekoa da hori.

Bai lehengo legeak bai oraingoak Itsas-lehorreko Jabetza Publikoa babesteko beste eremu bat ezartzen dute: Babes Zorgunea. Orain arte 100 metrokoa izan da normalean, baina hemendik aurrera hoge metrora jaitsi ahal izango da kasu askotan, eta jaitsiera hori automatikoa izango da itsasadarretan.

Esan dugunez, aurreko legeak ez du lortu triskantza batzuk eragozte. Halere, eraikuntza proiektu handiei aurre egiten saiatzeko balio zuen behintzat, Ekologistak Martxan elkarteak dioenez, “epaitegieta- ra jotzea ahalbidetzen zigun tresna bat zen heinean”. Hala lortu zen, esaterako, Plentziako Txipioko paduran kirol portu bat eta 750 etxebizitza eraikitzea galaraztea. “Baina legea indarrean egondako 25 urteetan gehiago eraiki da 60ko hamarkadan –legedirik ez zegoenean– baino, eta gehiago eraiki da legez kanpo; erakundeek ez dute ezer egin hori geldiarazteko”. Zein da aldea, Ekologistak Martxan ustez? PPren lege berriak are tresna gutxiago uzten diela ingurumena defendatu nahi dutenei, eta are bakanago bihurtu daitezkeela Txipiokoa bezalako garaipen urriak.

Hau ez da Mediterraneo, baina...

Argi utzi behar da gauza bat: 1988ko legeak asko eraikitzea eragotzi ez duela esatean, Espainiako Estatuko



TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

eskualde jakinez ari gara batez ere. Galizia eta Mediterraneoako itsasertza daude denen ahoetan, baina horrek ez du esan nahi gurean adibiderik ez dagoenik. Esaterako, Bakioko Askada inguruan –hondartza gaineko amildegian bertan– egindako bost txaletak, edo, askoz ikusgarriagoa, Orioko Muntoko urbanizazio eskerga, epaitegien behin-behineko ebazpenek legez kontraktotzat jo arren aurrera joan dena. Beste batzuetan, 1988ko Kostalde Legeak eraikuntza egitasmoen eragina apaldu du, guztiz saihestu ez arren. Kasu baterako, Mutriuko kanpo moilaren proiektuaren lehen bertsioa zertxobait leundu eta hondartzaren zati bat mantendu ahal izan zen behintzat, nahiz eta geratu denari hobeto egokitzen zaion “hondartoki” izena, “hondartza” baino. Hala uste du, behinik behin, herri horretan Berdeetako zinegotzi eta Equoko kide den Iñigo Agirrek.

Zer jazoko da Praileaitzekin?

Agirrek hitz egin digu, hain zuzen, Kosta Lege berriak ekar dezakeen mehatxu zehatz batez: Praileaitzen lortutako babes gal-tzea. “Orain arte Kostalde Legea izan da bertako kobazuloa harrobiaren mehatxuaz babesteko armarik onena, baina orain, babes eremua ehun metrotik hogeira murriztuz, harrobiaren proiektua gauzatu liteke”.

Balizko beste ondorio bat Urdaibain dago, Alfonso Cañok azaldu digunez: lege aldaketak –Jaurilaritza jeltzaleen eskuetara itzultzearekin batera– Guggenheim museo bat Sukarrietan eraikitzekeo egitasmoa indarberritu dezake, Patxi Lopezen garaian Lakuak hartutako zenbait neurrik Bizkaiko Aldundiaren asmoak apaldu ostean. Momentuz, baina, ez dago ezer seguru esaterik. Lege berria berriegia da, eta ez da ahaztu behar, besteak beste, indarrean dirautela oraindik aurreko legetik eratorritako araudiek.

Etorkizunak zer dakarren ezin zehatz esate horrek gidatuta, zuhurtzia osoz erantzun digu Eusko Jaurilaritzak, Ingurumena eta Lurralde Politika Sailaren bitartez, lege berriaz galdetu diogunean. Zain daudela momentuz, eta kasu konkretuak banan-banan aztertu beharko dituztela esan digute, batik bat araudiak garatu ahala.

Kontuan hartu behar da EAEk baduela kostaldea kudeatzeko tresna bat, Itsasertzaren Ordenazio eta Babeserako Lurralde Plan Sektoriala, Madrillgo legeak baino hagitzez zorrotzagoa, nahiz ez beti behar bezala aplikatua. Kontuak kontu, askoren ustez Estatuko legedi berriak bete-betean sartu nahi du ez dagokion eremuan, alegia, eskumen gatazka sor daiteke arau bien artean. Greenpeaceko Pilar Marcosek ez du zalantzarik aferaz: Eusko Jaurilaritzak helegitea aurkeztu behar luke Kostalde Lege berriaren aurka. Beste erkidego batzuek agertu dute dagoeneko hala egiteko asmoa, baina Lakua mutu dago oraingoz.

Klima aldaketa arbuia

Lege berriaren aurkarien, eta batez ere talde ekologisten, kritika zorrotzena izan da lege berriak ez dituela kontuan hartzen klima aldaketaren ondorioak. “Euskal kostaldea, hain zuzen, itsas mailaren igoera gehien jasan dezakeenetako bat da, bere ezaugarriengatik”, diosku Greenpeaceko Pilar Marcosek. Elkarre ekologistako kidearentzat harrigarria zer nolako erdeinuz hartu duen gai hori PPK: “Azken unean Senatuko eztabaidan onartutako emendakin baten bidez, zera esan dute: azkenean klima aldaketa gertatzen bada, beharrezko neurriak hartuko direla. Eta itsasoari eusteko harresiak eraikitzeaz hitz egiten dute. Itsas mailaren igoera hipotesi hutsa balitz bezala!”. Izan ere, zientzialariek esandakoari muzin eginez osatu du legea PPK. ■



VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

DIBERTIKALE

- > **Ttiki Ttaka irratia**
Uztailak 8, Sefarad plaza, 19:30
- > **Trilita**
Uztailak 9, Zaitzegiko gazteluaren plaza, 19:30
- > **Orsai**
Uztailak 11, Caracas kalea, 19:30
- > **Barre laborategia**
Uztailak 12, Abetxukuko kiroldegiaren plaza, 19:30

ADURTZAKO JAIK

- > **Magia erakustaldia: Asier Kidam**
Uztailak 13, 19:00
- > **Ttiki elektrotxaranga**
Uztailak 13, 19:00
- > **Itziarren Semeak kontzertuan**
Uztailak 13, 23:00
- > **Bertso-saioa: Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Izar Mendiguren**
Uztailak 14, 13:00

ZABALGANeko JAIK

- > **EMON Konfeti Kolore**
Uztailak 20, 22:00

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK

KONTZERTUAK EUSKARAZ

- > **AIHOTZ PLAZA, 00:00**
 - Eñaut Elorrieta. Abuztuak 5
 - Antton Aranburu. Abuztuak 6
 - Gose. Abuztuak 7
 - Gozategi. Abuztuak 8
- > **FORU PLAZA, 00:00**
 - Gatibu. Abuztuak 6
 - Txosnen batzordea (unibertsitatea)
 - Akerbeltz. Abuztuak 3, 01:00
 - Anje Duhalde. Abuztuak 5, 00:00
 - On. Abuztuak 5, 02:00
 - Karaoke. Abuztuak 5, 03:30
 - Willis Drummond. Abuztuak 6, 02:00
 - Sacramento. Abuztuak 6, 03:30
 - Betagarri. Abuztuak 8, 02:00

GAU JAIK

- > **ARKA PLAZA. 00:30**
 - Koxkor Taldea. Abuztuak 4
 - Lisker. Abuztuak 5
 - Joselu Anaiak. Abuztuak 6
- > **EGUNERO AIHOTZ PLAZAN**
 - Bertsolariak, 13:30
 - Dantza plaza, folklorea, 19:30
- > **PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLAZAN. 12:30**
 - Antzerkia, txotxongiloak eta pailazoak

Maite duzun hura, euskaraz!

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udaia